

SUP-SUR

suprematismoa: Termino honekin izendatu zuen Kasimir Malevich-ek bere teoria, artearen "an-objektualitate garbiaren" teoria, manifestu moduan egin zuena eta lehenengo aldiz 1951n argitaratu zuena Mayakowski poeta errusiarraren laguntzarekin. Suprematismoak, manifestu teoriko bezala erreprezentatzen du aurretik, batez ere abangoardia errusiarraren arte-zirkuluan, Malevitch, Tatlin, Rodchenko eta Pevsner anaiekin jaio zen estetika geometriko-konstruktibista hura printzipio formal puruetan dogmatizatzeko ahalegina, eta itzuri egin nahi dio arte konstruktibista soziopolitikoki diseinu konfigurazioarekin eta teknika industrialaren esparruetan integrazeari.

Bere teoriaren kintaesentzia bezala —"an-objektualitate garbiaren esperientzia"—, Malevich-ek 1913an koadro "perfektu" bat aurkeztu zuen, beltza fondo txuriaren gainean. Edozein an-objektualitatearen ondoren abstrakzioari aurkitzen zitzaion alderdi espresibo eta anekdotiko guztia erauzi beharra omen zegoen, forma garbiak eta absolutuak aplikatuz harmonia bakuneren plasmazioan. Karratu beltza fondo zuriaren gainean koadroan, artistak "ikono biluzi enmarkatu" bezala kalifikatu zuen horretan, Malevich-ek egikarrituta ikusten zuen murrizketa objektiboaren zero puntua, eta —karratuarekin batera— angelu, zirkulu, errektangelu eta gurutzearen forma geometrikoek bakarrik ematen zien oinarriko izaera estruktural berdina. Suprematismoaren manifestuak determinazio sensorialaren askapena lortu nahi du, hau da, esperientzia objektiboaren askapena; Malevich-en pintura suprematista espazio mugagabearen deformazio ororen kontra altxatzen da, espazio horrek, dimentsionalitate eta neurgarritasun orotatik libre, substantzia absolutu = espiritu hutsa errepresentatu behar baitu.

surrealismoa: Surrealismoaren sorrera antzeppen dada anitz eta heterogenoetan aurkitzen da, hain zuzen ere Zurich-eko "Voltaire Kabaret"koak baino probokatzaileragoak zirenak oraindik, eta 1919tik aurrera Parisen ospatu zituztenak *Littérature* aldizkariaren argitaratzaileek eta Picabia, Duchamp, Max Ernst, Man Ray pintoreek,

André Breton, Paul Eluard, Robert Desnos, Benjamin Péret, Philippe Soupault, Tristan Tzara, Louis Aragon poetek eta beste hainbatek, zeintzuek dada mugimenduaren amaiera zalapartatsuekin batera surrealismoaren jaiotza aldarrikatu baitzuten. Surrealista hitza 1917an erabili zen lehenengo aldiz, Gillaume Apollinaire-ren *Les mamelles de Tirésias* (Tiresiasen bularrak) obra trufatian; surrealismoaren arte-korrontea literaturan jaio zen, bereziki Rinbaud, Lautréamont, Mallarmé, Apollinaire eta Pierre Réverdy-ren poesiarekin.

Futurismoaren antzera, surrealismoa ere manifestu moduan egindako bere helburuen aldarrikapenez baliatzen da. 1924an azaldu zen *Manifest du Surréalisme*, André Bretonena. Idazki horretan Bretonek ametsa, ikuspen aluzinatua, postulatu zuen errealtate kontzeptuak modu bat bezala, eta arrazoiak kontrolatutako sentimen eta adimen normalak bezain baliozkoa zela esaten zuen. Freuden psikoanalisi goraipatzean ametsaren sarkortasun psikorako gaitasunari ematen zitzaion tributu, eta irudimenaren ezagumen-bidea sormen individualaren maxima goren izatera altxatzen zen.

Bretonek esana: "Amets eta errealtatezko bi egoera hauen —itxuraz kontrakoen— etorkizuneko diluzioan sinesten dut, errealtate absolutu eta, nahi bada, super-errealtate moduko batean". Ametsa prozesu sortzailearen sartzak izakiaren azalpen kreaizailearen betetasuna garrantzitzen du, eta bizitza individualaren aldaketa efektibo eta iraultzaile bat posible egiten du, sentimene eta espresioen munduari mugagabeko hedapena emateko zentzuan. Arte-obraen kontzeptu logikoa kondentatzen, kasualitatearen garaia sortu zen, balorazio berrien garaia, arruntasunaren kalifikazio berriarena, elementu konfigurazioarekin funtsezkoa baita pintore surrealistentzat. *Frottagea* eta *Grattagea* hartuz "pintura automatikoaren" kanporaketa bezala, teknika piktoriko berriak asmatzen jarraitu zuten surrealisten (Max Ernst-ek), lehen dadaistek hasita zeuzkatenak, baina orain sentsazio original, bisionarioen forma idiomatiko bezala hartuta. De Chirico-ren *pittura metafisica* italianotik hartu zuten surrealisten perspektiba aprio-

ristikoa ezabatzea, gauzen arkano magikoa. Objektua gainjarritako adieren hartzaile bihurtzen da, "errealtate animikoak kanpoko mundu errearen tokia betetzen du" (Breton).

"Idazkera automatikoaren" metodoarekin kalifikatu zuen teorikoki Bretonek ametsen erregistro surrealisten izaera. Idazkera automatikoak egoera animikoa eraldatu eta zuzen-zuzenean espresio plastiko bihurtu nahiko luke, hain zuzen ekinga sortzaileak ez dezan izan adimen antolatzailearen alde-rik eragin estilistikorik jasotzeko denborarik. Automatismo sortzailearen erabilera Max Ernst-en *frottage*en automatismo sinbolikoan antzematen da, horietan material lakarren igurtzia izaten baita etorkizunaren ikuspen aluzinante bat sortzeko abiapuntu. Bestelako egikaritze-mota bat aurkitzen da André Mason-en automatismo eritmitikoan, zeinak irudiaren ikuspen irudimenezkoa ateratzen baitu bere arkatz errante eta fantasiaz betetakoaren lerro-zaparrada esploratzailetik.

Bere eboluzio horretan, surrealismoa bi korronte desberdinetan banatu zen, horietako bakoitzak, bere aldetik, norabide estilistiko berri bana aurreratzen zuelarik. Automatismo eritmitikotik, Roberto E. Mattaren automatismo absolututik, tatxismoa eta *action painting*-aren pintura leherkaria atera zen eta mugimendu abstraktu berriaren oinarria osatu zuen berrogeita hamar-garren urtetako Ameriketako, funtsean Jackson Pollock-en *dripping*-ak ordezkatzeko duena. Azterketa sistematikoa, bere "jardura intelektual paranoiko-kritiko"arekin, nagusiki Salvador Dalí-ekin eta Luis Buñuel zine-zuzendari surrealisten hasi zen, horiek, izan ere, ankerkeriaren antzerki artaudianoan inspiratuz absurdoaren fondo psikoanalitikoan sakondu baitzuten. Dalí-k eta Buñuel-ek aluzinazio eskizoiden prozesua, artifizialki elaboratutakoa, ilustratu zuten esperimendu horren bitartez alderdi arrazionalaren eta irrazionalaren arteko dialektika ebazteko identitate-ekuazio baten barruan. Horren ondoren sortutako neosurrealismoaren fundatzaileak izan ziren; neosurrealismo hori, gaur egun, surrealismo fantastiko, magiko eta mitikoaren hiru korronte estilistikoetan banatua dago. ■